

ABIZENAK

Antzustegi (Eibar 1592): Amorebietan eta Bilbao dago eta Eibar'en be bai.
"Antxu" edo "antxus" intxaurra da eta "-tegi" atzizkiak ugaritasuna gaiñeratzen dautso. Erderazko "nogale-da"ren antza dauko.

Anda (Valladolid 1535): Araba'ko abizena eta andik Bizkaiko Enkarterrira tokiz aldatua. "Ana" abereen barrutia izanik "-da" atzizkiak tokia dala diño.

Andikoetxea (Eibar): Jatorri bi izan daikez. Lenengo, urriñean, andiko aldean, dagoan etxea eta bigarrena, "andi" barrutia dala, andiaren barruan dagoan etxean.

Angoitia (Zeanuri): "Ana" abere-barrutia dala, "Goi-tia" barruti orren goiko aldean dagoala dirausku.

Anitua: Bermeon eta Ziortza'n dago. Eibar'en be entzututen da baiña kanpotik joana.
"Ana" barrutia izanik, "-tu" tokia adierazteko ezarria da eta azkeneko "-a" edo "-aga", indarra emoteko ezarria.

Ansoleaga: (Urduliz 1740): "An" abereen bedarlekua dala, "olea" gaiñeratzen jako eta onek burdin-ola dagoala bedarlekuaren barruan diño eta "-aga" azkena sendotzeko da.
Urduliz'tik zabaldua da.

Ansorena (Berastegi 1741): Naparroatik zabaldu da Gipuzkoako alde batera eta "Anso" bedarleuagaz dau zer-ikusia eta "-rena" etxe ori norena dan adierazteko ezarri jako. Orrelan abizen onek jator'izko etxea "anso" edo Santxo izenekoarena dala diño.

Anzola (Elgoibar 1597): "Antza" bedartza aundia da eta azkeneko "-ola"n ugaritasuna gaiñeratzen dau, "urkiola" lez, baiña ez dauko zer-ikusirik burdin-olagaz.
Elgoibar'en eta Iparraldeko Saran aurkitzen dogu.

Añibarro (Zeanuri 1770): Idazle ospetsu baten izena da, bizkaitarra, Zeanurikoa, eta izen au daroan baserria be antxe dago.
"Ani" bedartza da eta "barro" zelaia.

Apellaniz (Kanpetzu 1739): Araban eta Naparroan dago.
"Apel" bedartza izan leiteke eta "an" be antzeko zer-bait. Azkenean abizen askok daroen "-iz" ori ez dakigu zer dan.

Aperribai (1628): Bizkaian ei dago ugari abizen au: Galdakanon, Zeanurin, Orozkon. Bergara'n be ezagutu dogu.
Karraska deritxon landara bat eta "ibai" erreka gogoratzen dauz. Etxea erreka-ondoko karraska artean dago.

Akesolo (Dima): "Aka" sasia dan ezkeru, sasiondoko soloan dagon etxea litzake. Badiño "akerren soloa" dala be.
Akesolotarrak ezagutu doguz eta Diman jaioak izan dira.

Aranbarri (1711): Okendon dago eta emendik joanda Azkoitia eta Ondarroan.
"Aran" basaranak dagozan tokia da edo ibarra be bai. Barri onek toki-izenetan ez dauko gauza "barria" adierazteko antzik. "Barri" basoa dala be ba-diño.

Arana (Zumarraga 1713): Euskalerrri osoan agertzen da, geiago sartaldean.
"Aran" ibarra da eta gaiñeratzen jakon "-a" mugatzaillea. Au indartu nai danean "Aranaga" sortzen da.
Basaranak dagozen lekua be izan daiteke.

Aransolo (Gamiz): Bizkaian dago, etxe bi izen one-gaz Gamiz'en.
Basaranak dagozen soloa izan bear leuke, baiña toki oneitan errezago izan leiteke arantzak dagozen soloa edo aranean dagoana.

Aranzamendi: Bizkaian eta Gipuzkoan. Arantzak dagozan mendia.

Arbeo (Arrasate 1399): Aitzaren azpian dagon tokia edo etxea. "-o" azkenekoak tokia adierazten dau.
Bizkaian zabal dabil.

Olazar'tar Martin'ek

